


Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera (83 -07)

Hezkuntza sistemako hizkuntza-ereduetako matrikulazioen azken 25 urteetako bilakaerari erreparatuta, euskarazko ikas ereduaren aldeko joera igartzen da. B eta D ereduak bien artean matrikulazioen % 11 izatetik matrikulazioen bi heren izatera pasa dira (32 eta 34 hurrenez hurren). Gaztelera hutsezko A ereduak, berriz, lehen bosturtekoan joera hazkorra izan ondoren -X ereduak ordezkatzuz, nolabait-, 1986-88 inguruan matrikulazioen %80tik gora hartzetik matrikulazioen heren bat inguru jasotzera pasa da 20 urtetan.



Gogoan izan behar da, halaber, 3 urte baino gutxiago duten umeen eskolatasak kontuan hartuta, argi dago gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela eskola hizkuntzaren transmisioan. Izan ere, 2005-2006 ikasturtean 2 urteko haurren %89,5 eskolatuta zegoen EAEn.